

**ALKATETZA  
DEKRETUA**

Esp.: 2018/IDA\_DEK0217

2018 000000334

Xedea: ALKATETZA DEKRETUAK- GAS NATURAL HORNIDURA 2018-2019. ESPARRU AKORDIOTIK ERATORRITAKO KONTRATUA.

**Planteatutako gaia**

2018-2019 urteetarako Gas natural hornidurarako Esparru-Akordiotik datorren kontratazioa esleitu eta formalizatzeko proposamena.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: Bermeoko Udalak Bizkaiko Foru Aldundiko kontratazio zentral Foralera atxikitu zan Udal Osoko Bilkurak 2017-02-03ko 8.erabaki bidez.

Bigarrena: Bizkaiko Foru Aldundiko Kontratazio zentral Foralak bideratutako Gas natural hornitzeko Esparru-Akordiora atxikitu zan Bermeoko Udala 2017-10-17ko 1213 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez.

Hirugarrena: Bizkaiko Foru Aldundiak Gas natural hornitzeko Esparru-Akordioaren amaiera onartu eban NEXUS ENERGIA SA, NIF A-62332580 enpresarekin, Bizkaiko Foru Aldundiko 2018-01-30eko 10.erabaki bitartez. Foru espediente zbk: 2017/009/074/07.

**Argudioak:**

Lehenengoa: Konsignazino nahikoa dago gastu honetarako. RC2017/468.

Bigarrena: Beharrianen txostena 2017-10-06ko dataz burutu zan, espedientean agertu bezala.

Hirugarrena: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 198. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, NEXUS ENERGIA SA, NIF A-62332580 enpresarekin eratorritako kontratua adjudikatuko zaio, esparru-akordioaren ondorioetan ezarritako terminoen arabera.

Laugarrena: 2018ko martxoaren 20ko dataz, NEXUS ENERGIA SA enpresak bere eginbeharrak burutu ebaza, behin betiko bermea eta gainontzeko agiriak aurkeztuz, martxoaren 5eko 1024 irteera erregistro data eta zenbakiagaz bidalitako errekerimenduari jarraiki.

Bosgarrena: 2018ko martxoaren 5eko 244 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, Tokiko Gobernu Batzarraren eta Ekonomiako zinegotzi delegatuaren artean honela banandu dira eskumenak gastuen faseak onartzeko:  
Tokiko Gobernu Batzarrak: AD faseak (600€tik gorako gastuetan)  
Zinegotzi delegatuek: AD faseak (600,00€ rainoko gastuetan).



Kontu batzordeko zinegotzi delegatua: OP faseak (edozein kopurutan).

**ERABAKIA:**

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, honako **hau erabaki dot:**

LEHENENGOA.- 2018-2019 urteetarako Gas natural horniduraren kontratazioa esparru-akordiotik eratorritako kontratua NEXUS ENERGIA SA, NIF A-62332580 enpresari adjudikatzea, esparru-akordioaren ondorioetan ezarritako terminoen arabera.

BIGARRENA.- Eratorritako kontratu honi egotz dakioken 95.388,15 euroko gastua baimentzea eta xedatzea NEXUS ENERGIA SA, NIF A-62332580 enpresaren alde eta 00600-92920-2210300 partidaren kargura.

HIRUGARRENA.- Eratorritako kontratua enpresa adjudikatzaillearekin formalizatzea.

*Orri-oinean sinatzailea eta data.*



Agiri hau benetakoa da, eta  
07E20000C43400D8A3J8G81X5  
kodeagaz egiaztatu daiteke  
Udalaren egoitza elektronikoan

**SINATZAILA eta DATEA**

IDURRE BIDEGUREN GABANTXO(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-ALKATEA -  
26/03/2018  
CN=tsa.izenpe.com, OID.2.5.4.97=#0C0F56415445532D413031333337323630, O=IZENPE S.A., C=ES -  
26/03/2018 21:27:14

EXPEDIENTE::  
2018IDA\_DEK0217  
Data: 23/03/2018  
Ordua: 00:00  
Und. reg:REGISTRO  
GENERAL

